

Arrais batez, alan be,  
—noiz, zelan, nok jakin?—  
aizea ta ura biak  
lagun barik zelaietan  
ziran alkarrekin.

Aizeak ots: —«Nun dogu  
adiakide lotsa?»  
—«Ez dakit: nun dago»  
—«Guazten bere billa  
Ete aren otsa...?»

Aizeak zoli-zoli  
Oiz tontor garaia  
ta trokak dauz araka,  
ura, ibar zokoz zoko  
luzaro da saia.

Adur gaiztoz egirik  
len-ekifaldia,  
aizeak urari ben:  
—«Ezer bai?» —«Ez, ba, maite»  
—«Ikus daigun goia».

Aizeak ba-eban goi  
naikoa istillurik;  
ura be andik dabil,  
laño mee ta odel illun,  
ete dan aztarnik.

Alzenez, nekatuta,  
urak aizeari:  
—«Ai!, aurkitu al dozu  
gure laguna?» —«Ez dot  
ezer be nabaria»  
—«Garbai bizitan, kutun,  
daukagu biotza»  
Baiña aren atz-izpirik  
ez daukigun ezkeru,  
alperrik gabiltza...

Lotsa gal ezberro,  
geigo nok idoro?

Igotz

## ERLEA TA ERLEROA

Orma gerizan, euzki begira,  
Arto ta arkaziz gordea,  
Erlauntza dago —enbor zakarra—  
Erla langillez betea.

Erlauntz atean —ezkerrerantza—  
Mamo bi dagoz katramil;  
Zer darabilen jakin naiean  
Ara eldu naz oin-ixil.

Erlategia beti izan yatzu  
Lan-irrikaren eredu;  
Baiña ba-dozuz an be alperrak  
Liztor, ero, kulumiu.

—«Zergaitik, baiña, nozue jaurtzen?  
—Oituka estu ernagi—  
Zergaitik, esan, laga bear nik  
Guztiona dan jauregi?  
Zer txarrik egin ete yonat nik?  
Iñor il? Ezer ebatsi?»

—«Ez, egia dok, —jalki erleak—,  
Ez dok iñor il; ez ostu;  
Baiña onik be, egin dok ezer?  
Ezertan daukuk lagundu?  
Emen gabiltzak, izerdi-jasaz,  
Lanari bultza ezirik;  
I harriz beti, epel-zerpela,  
Ezri oratu barik».

—«Ori don zera, asarretzeko?  
Ta ni, etxetik, bota nai?  
Euzkiak berak ez al akatsik?  
Itzal bage zugatzik bai?»

—«Ixillik ago, zaizaku ori,  
Ez dokala ein kalterik,  
Guk lorez lore xurgatutako  
Ezti gorriaz aserik?  
Eder yak iri nagi-bizitza.  
Zertan aiz onen itxia?  
Oa emendik, ta billa egik  
Nekerik bako ogia».

Labur ta sarkor bai zala mintzo  
Erlauntzeko zain maratza,  
Alpertzarrari zurki emonik  
Bizi-irakaspén garratza.

*Igotz*